

## JARRAIKORTASUNA II

Denbora-jarraikortasunaren arabera:

- Jarraia: denbora erreala eta denbora filmikoa berdina dira  
Sia – Chandelier  
<https://www.youtube.com/watch?v=2vjPBrBU-TM>
- Aldiberekoa:
  - Paraleloa: bi eszenen (gutxienez) planoak tartekatzen dira
  - Txandakatu, aldizkakoa edo elkartzen dena: aldi berean gertatzen ari diren bi eszena tartekatzen dira, batzuetan elkartzen direnean ikus dezakegu
- Ez-jarraia: Elipsiak edo flashback-ak erabiltzen denbora konprimitzen edo luzatzen da.  
Alderantzikatutako muntaketa ere ez-jarraia da, narrazio bateko denbora naturala da  
Requiem for a Dream Drug Scenes  
<https://www.youtube.com/watch?v=Mg2Gf9u6nal>

\*Pantaila erdibitua muntaia jarraian nahiz ez jarraian erabil dezakegu

### Ekintzen iraupena:

- Istorioaren, ekintzen iraupen naturala mantendu → plano sekuentzia
- Istorioaren, ekintzen iraupen naturala aldatu
  - Elipsia: denbora jauziak egitea. Denbora zehaztu daiteke edo ez (3 urte beranduago...)
  - Dilatazioa edo luzatzea: sekuentziaren iraupena istorioarena baino luzeagoa denean. Ekintza bereziak azpimarratzeko erabiltzen da. Adibidez, kamera geldoa erabiliz.

Erritmoa muntaian:

- Iraupen luzeko planoek erritmo geldoa sortzen dute
- Iraupen gutxikoek erritmo azkarra
- Lehen planoen segida batek tentsio dramatikodun erritmoa
- Plano orokor batetik itxiagoa den plano baterako aldaketak, gertaeraren azkartze bat ekar dezake, sortzen duen tentsio handitzeari esker
- Plano motzetatik orokorragoetara aldatzeak, hondoratze zein lasaitasun efektu bat sor dezake

Muntaketaren puntuazio marka batzuk:

- Mozketa
- Iraungipena edo fundidoa: Irudia kolpetik moztu baino, pixkanaka agertuko balitz bezala. Denbora, espazio edo kapitulu aldaketa adierazteko. Baita gertaera bati hasiera edo bukaera emateko ere.
- Izoztutako irudia: irudia gelditzea
- Barridoa: denbora eta espazio aldaketa laburrak, zorabioa edota flashback-ak irudikatze.
- Gortinak: forma geometrikoak izan ohi dituzte. Eszenatoki eta denbora aldaketak irudikatze.